

Diru laguntzak kenduz UPNko Gobernuak «ito» egin nahi duela salatu du EHNEk

Nekazari elkarteak Nafarroako Auzitegira eramango du Gobernuaren erabakia

A filiatuen izen-abizenak ez emateagatik Nafarroako Gobernuak EHNERi subentzioak kentzeko hartu duen erabakia «ilegala eta askatasun sindikalaren aurkakoa» dela salatu du nekazari elkarteak, EHNERen irudiko, UPNko gobernuak sindikatua «ito» nahi du hauteskundearen atarian.

A.Unanue / Iruñea

NAFARROAKO EHNEko lehendakari Mikel Petrirenak gogor kritikatu zuen atzo Iruñeko Gobernuaren erabakia, eta Nafarroako Auzitegi Nagusian errekurrituko dutela iragarri zuen. Horrez gainera, EHNEk talde politikoekin hitz egingo du subentzioen aferra Foru Parlamentura eraman eta protesta ekintzak egingo ditu ka-lean.

Polemika Nafarroako Nekazaritza Sailak iazko urrian onartu zuen foru aginduak piztu du. Agindu horren bidez, Nekazaritza Sailak aldatu egin zituen diru laguntzak banatzeko irizpideak, eta subentzioak eskuratzeko afiliatuen izen-abizenak exijitu zituen nekazari elkartei. Agindua-ekin ados ez egon arren, UAGNk amore eman zuen eta afiliatuen zerrendak aurkeztu zituen subentzio eskaerian. EHNEk, ber- rriz, Madrilgo Datu Babeserako Ajentziara jo zuen afiliatuen da- tuak ematera behartuta zegoen ala ez jakiteko. Ajentzia horren arabera, nekazari elkarteek ezin dituzte afiliatuen datuak erabili haien baimenik gabe, eta EHNEk afiliatuen datuak gordetzea erabaki zuen orduan.

Nekazaritza Sailak ez zituen aintzat hartu EHNERen argudioak, eta ukatu egin zizkion iazko diru laguntzak; aldi berean, ne-



Mikel Lasarte, Mikel Petrirena eta Fermin Mariñelarena.

JOXE LACALLE

kazari elkarteentzat aurreikusita zeuden 20 milioi pezetak UAGNri ematea erabaki zuen.

Petrirenak nekazarien «esku- bide pertsonalen eta askatasun sindikalen aurkako erasotzat» jo zuen UPNko gobernuaren erabakia, EHNEk nahita ere ezin duela «afiliatuei buruzko informa- zio konfidentzialik eman». Nekazaritza Sailak eskaria kontrola zorrozteko asmoz egin zuela adierazi badu ere, besterik uste du EHNEk. «Gobernuak ito eta ahuldu egin nahi gaitu. Ez da kasualitatea erabaki hori orain artu izana, nekazarien hauts- kundeetarako hilabete gutxi falta direnean. Bistan da Gobernuak UAGNren alde egin nahi duela hauteskundearen atarian, EHNERen kaltetan. Horregatik erabaki dute hain modu zakar eta ilegalean guri subentzioak kentzea», nabarmendu zuen Petrirenak.

Nafarroako EHNEk bost edo sei milioi pezeta gal ditzake, baina Petrirenak esan zuenez, diru kon- tua baino larriagoa da erabakia- ren atzean dagoena, Gobernu- a-

ren estrategia bere kordakoak ez diren ahots kritikoak eta «min egiten dioten erakundeak isila- raztea eta hondoratzea» omen de- lako.

Alli: «Sistema inkisitoriala da»

JUAN CRUZ ALLI Nafar Demo- kraten Elkarguneko (CDN) lehendakariaren iritziz, «diru laguntza emateko baldintza gisa afiliatuen datuak eskatzea sistema inkisitoriala da». Nafa- rroako Gobernuaren baldintza horren sakoneko legezkotasu- naren eztabaidan sartu gabe, Alliren ustez, «ez dirudi oso zuzena sindikatu batek bere afiliatuak identifikatu behar horrek».

CDNko buruak atzo EGUN- KARIARI erran zionez, «edozein elkargoko kide izateko eskubi- dean arakatzeko ezegokia da».

Allik egokiago dakusa sindika- tuko kideek ordaintzen dituz- ten kuoten arabera afiliazioa- ren egiaztaketa.

Antzeko jarrera agertu zuten Nafarroako CCOO eta LABeko arduradunek. CCOOko Garatea «harrituta» zegoela erran zuen. Bere ustez «susmagarria eta kezagarria da» gobernuaren eskakizuna. LABeko Santi Lorentek zionez, «gobernuaren eskakizuna politikoa da. Eus- kal kutsuko edozeren aurkako estrategia adibidea eta askatasun sindikalaren aurka- koa da». X



Gazte ugari Prest'98ren aurreneko ekitaldian

Prest'98 Prestakuntza eta Enplegurako I. Erakustazokak atek zabaltu zituen atzo Bilbon. Juan Jose Ibarretxe lehendakariordea, Francisco Egea Lan sailburua eta Josu Ortuondo alkatea izan ziren inaugurazio ekitaldian. Aurreneko ekitaldian jende ugari gerturatu zen enplegua aurkitu eta prestakuntza hobetzeko dauden eskaintza interesaturik. Gazteak dira bisitari ugarietak, Prest'98 hau neurri handi batean gazteei argibidea ematera zuzendurik baitago. Inaugurazio ekitaldian, Ibarretxek lan prestakuntzaren garrantzia azpimarratu zuen, lanpostua ziurtatu eta garapen ekonomikorako ezinbesteko tresna izango delako, eta gizarte eragileei lan harreman malguagoak eskatu zizkien. Prest'98 bihar arte egongo da zabalik.


Arabako ekonomiaren hazkundera %6 izan zen 1997an

■ Esportazioen igoera «itzela» izan dela dio SEA enpresarioen elkarteak

Efe / Gasteiz

ARABAKO ekonomiaren haz- kudeak merka guztiak hautsi- zituen iaz. SEA Arabako en- presa nagusien elkarteak ar- duradunek esan dutenez, az- ken hiruhileko datuak bildu gabe egon arren, ekitaldi oso- ko Barne Produktu Gordinak %6 egin zuen gora. Gipuzkoa eta Bizkaia hazkundera %4 ingurukoa izan da amaitu be- rri den ekitaldian. Horregatik, inguruko probintzietako haz- kundearekin eta aurreko ur- teetan jasotako emaitzekin al- deratuta, «Arabako egoera ekonomikoa ezin hobea da». Juan Maria Ollora SEAKo ikerketa taldeko zuzendariak esan duenez, «adierazle guz- tiak aurreko urteetakoak bai- no hobek dira».

Esportazioek, esaterako, «igoera itzela» izan dute 1997an, aurreko urtean baino %160 handiagoak izan baitzi- ren.



Juan Maria Ollora SEAKo kidea.

OLALDE

Enpleguaren bilakaera ere Hego Euskal Herriko probin- tzietakoa baino nabarmen ho- bea izan da. Enplegu tasak %4,9 egin du gora amaitu den urtean, eta langabezi tasa %14,29 da. EAEko batenaz bestekoa hori baino lau puntu handiagoa da.

Aurten joera horri eutsiko diotela uste dute SEAKoek. «Ahaztuta geneuzkan hazkun- de tasetara itzuli gara. Haz- kunde tasa horiek garatzen ari ziren herrietakoak zirela uste genuena, baina aurrean dugun erronka horixe da: ga- ratzen ari diren herrien tamai- nan hazi eta herri garatuen esperientzia eduki».

Arabako ekonomiaren haz- kundearen oinarrietako bat atzerriko merkatuak dira, eta «nazioarteko ekonomiaren bilakaerak geroz eta eragin handiagoa du gurean», betiere Ollorak ohartarazi duenez. Gauzak horrela, mer- katu ezberdinetara jotzen saiatu beharko dutela diote SEAKoek. X